



Esp. kodea: 2016SAPL0006

Gaia: PLENOA 2016-06-07
Hasiera eguna: 2016/05/31

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko ekainaren 7a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko maiatzaren 3a egindako bileraren akta onartu du.

2. URIBARRI ETORBIDEA 1-3-5-7 GARAJEETAKO INSTALAZIOEZ OKUPATU BEHARREKO LUR ZATIAREN KALIFIKAZIO JURIDIKOA ALDATZEKO ETA LURZORU PUBLIKOAN ZORPENAK ERATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Osoko bilkurako kideek aho batez onartu dute a 1,39 m²-ko lur zatiaren kalifikazio juridikoaren aldaketa, URIBARRI ETORBIDEA 1-3-5-7ko eraikinaren alboan dagoena, jabetza publikotik desafektatzeko eta kalifikaturik egoteko partzela soberakin moduan (ondare ondasuna), tximinia bat jartzeko eraikuntza horretan dauden garajeetako aireberritze sistemaren airea ateratzeko, espedientearen egiaztaturik dagoen bezala.

3.- “ZARUGALDE KALEA 37AN DAGOEN ERAIKINA ERAITSI ETA INGURUA EGOKITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA” BURUTZEKO BEHARREZKO ONDASUNAK ESKURATZEKO DESJABETZE ESPEDIENTEAK ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKOZ ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurako kideek aho batez, besteren artean adostu dute onartzea Juan Jose Otaduy Echevarria jaunak eta Marina Pérez Mendiguren Fernández de Retana andreak jarritako berraztertze errekurtsoa, eta horren ondorioz baliogabetea osoko bilkurak 2016ko apirilaren 29an hartu zuen akordioa eta espedienteak atzera egitea ondasunen eta eskubideen zerrenda behin betiko onartu zen aldira. Horretaz gain, onartzea desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda, “Zarugalde kalea 37an dagoen eraikina botatzeko Oinarrizko Proiektua” exekutatzeko, eta adieraztea zerrenda horretako ondasunen eta eskubideen titularrei HAMABOST EGUNeko epe batean (akordioa jakinarazten den egunetik aurrera) prezio bat proposatu dezaten, elkarrekin ados jarrita erosteko, indarrean dagoen legerian ezarrita dauden balorazio irizpideak erabilia

4.- ARRASATEKO UDALAK ZERRAJERA KALEAN DAGOEN APRENDICES ERAIKINAREN JABETZA ESKURATZEKO SPRIREKIN HITZARMENA SINATZEKO PROPOSAMENA.

Aldeko 10 boto eta 10 abstentziorekin onartua geratu da truke hitzarmen edo kontratu bat sinatzea Arrasateko Udalaren eta SPRIren artean horien artean bi finken trukaketa egiteko. Horren bidez Arrasateko Udalak eskuratuko du Aprendices eraikina kokatua dagoen finka eta SPRIk eskuratuko du AE 86.-



Esp. kodea: 2016SAPL0006

Gaia: PLENOA 2016-06-07
Hasiera eguna: 2016/05/31

ZALDUSPE eremuan dagoen finkaren % 35,58a.

5.- INFORMAZIOA ELKARTRUKATU ETA ADMINISTRAZIO LANKIDETZARAKO TRAFIKO ZUZENDARITZA ETA FEMPEN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurako kideek aho batez onartu dute Udala atxikitzea Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoaren eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren artean sinatutako lankidetz hitzarmenari, informazioa trukatzeko eta administrazio lankidetz izateko elkarren artean. Horren bidez, Arrasateko herritarrak helbidez aldatzen direnean edo Arrasatera bizitzera etortzen direnean beren ibilgailuaren helbidea aldatu ahal izango dute udalean bertan hori eskatuta eta horrela, zirkulazio baimenaren helbidea aldatu Trafikoko Buruzagitzaren Delegaziora joan beharrik gabe.

6.- MARTXOAREN 31AN 2016 URTEKO AURREKONTUAREN EGOERAREN BERRI EMATEA.

Osoko bilkurako kideek honen berri hartu dute.

7.- TGBAK 2016EKO 1. HIRU HILABETEAN ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Osoko bilkurako kideek honen berri hartu dute.

8.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA PROPOSATZEA.

Aho batez onartu da Lanpostuen Zerrendaren eta udal Plantilla Organikoaren honako aldaketa:

1.- **Plantilla Organikoa** aldatzea modu honetan:

- Amortizatzen da:
 - o Peoi elektrikari plaza (E sailkapen taldea, administrazio bereziko eskala, zerbitzu bereziak azpiezkala, ofizio langileak mota eta peoi kategoria).
- Sortzen da:
 - o Elektrikari plaza (C2 sailkapen taldea, administrazio bereziko eskala, zerbitzu bereziak azpiezkala, ofizio langileak mota eta elektrikari-ofizial kategoria).

2.- **Lanpostuen zerrenda** aldatzea modu honetan:

- Amortizatzen da:
 - o Peoi elektrikaria (158. kodea):

IDENTIFIKAZIOA						ESKATUTAKO BALDINTZAK									
Har	Dedik.	Udh	DK	KE	DBK	Res.	ST	Sing	Horn	Eskala	Azpiesk	Mota	Titulua	Besterik	HE



Esp. kodea: 2016SAPL0006

Gaia: PLENOA 2016-06-07
Hasiera eguna: 2016/05/31

F	Normal	7,0	10	640	--	AU	E	EB	L	AB	ZB	LP	Elektrizitatea	B1.	1	2014/12/18
---	--------	-----	----	-----	----	----	---	----	---	----	----	----	----------------	-----	---	------------

- Sortzen da:

- o Elektrikaria (63-2 kodea).

IDENTIFIKAZIOA						ESKATUTAKO BALDINTZAK										
Har	Dedik.	Udh	DK	KE	DBK	Res.	ST	Sing	Horn	Eskala	Azpiesk	Mota	Titulua	Besterik	HE	
F	Normal	11	17	790	--	AU	C2	EB	L	AB	ZB	LP	LHI elektrikaria	B1. Instalatzaile txartela.	2	

9.-ANDRES BODALO ZINEGOTZIAREN EGOERA SALATZEKO, IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Irabazi Udal Taldeak aurkeztutako mozioa ez da onartua izan, bi bozketatan berdinketa gertatu ostea, Alkatearen kalitatezko botoaren ondorioz.

Arrasaten, 2016ko ekainaren 7an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta